

BOUD, D., COHEN, R. eta WALKER, D. (edit.) (2011)

*El aprendizaje a partir de la experiencia. Interpretar lo vital y lo cotidiano como fuente de conocimiento. Madril: Narcea.*

Liburu honek planteatzen duena ezin esan azken berria denik eta seguruenik horren inguruan atsotitz mordoa gogora etorriko zaio norbaiti baino gehiagori: «la experiencia es la madre de la ciencia», «eroriz zazpi aldiz, ikasten da zaldiz», «letraduak badaki, probatuak hobeki», «asko daki zaharrak, erakutsi beharrak», «años y escarmiento, dan al saber cimiento»... Ikaspen hau hain agerikoa izanda, zer erakarpen dakar honako argitalpenak? Ezer baino lehen mundu garaikidean ezagutza-bideak ugaritu (eta batzuk era berezian lehenetsi) egin direnean azpimarratu beharrekoa da esperientziak ikasketarako duen garrantzia, bai ikasketa formalean baita informalean ere. Esperientziatik nola ikasten dugu, nola azter eta ebalua dezakegu gure esperientzia, nola eragiten duen gure esperientziak bakarkako ikaste prozesuan zein taldekakoan, nola aprobetxa gertuko esperientzia eta aspaldikoa, nola erlazionatu besteenekin...?

Hiru multzotan dago egituratuta: sarrera batekin haste bada ere («Esperientziatik ikastea»), lehenengo multzoak «ikasketaren jatorria esperientzian» kokatzen du eta lau egilek atal bana jorratzen dute horren inguruan, beti ere norberaren esperientzia abiapuntua. Bigarren multzoak «esperientziaren inguruko hausnarketa nola bideratu eta bultzatu» du xede eta oraingo honetan ere lau ataletan bost egilek egiten dituzte euren ekarpenak. Azken multzoa taldeei zuzenduta dago: «Nola ikasten dute taldeek euren berezko esperientziatik» eta hiru ataletan beste bost egilek jarduten duten horren inguruan.

Hiru egile azaltzen badira editore bezala (Australiatik hauek, Sydney-tik lehenengo biak, Randwick-etik hirugarrena) hamabost egileren

ekarpenek (Portsmouth, Minnesota, South Africa, New York, London, Connecticut...) osatzen dute honako liburua, esperientzia ugari eta ezberdinen testigantzak eta gogoetak eskainiz. Hortxe dugu, esperientzia eta ikuspuntu aniztasun horretan azpimarratu beharreko balioa, baita liburu honen (eta honen moduko) alderik ahulena ere, egitura sendoa behar baitute holakoek eta kolore diferenteak izateaz gain honako honetan ekarpen guztiak ez dira pisu berekoak. Hala ere, bost proposamen finkatzen dute sarreran egile guztien erreferentzia izan daitezen eta irakaskuntzan murgildutako irakurleak aurkituko du, batean ez bada bestean, bere jarduerarako baliogarriak diren hausnarketak, estrategiak, hanka sartzeak eta alternatibak. Hori bai, besteenak dira esperientzia horiek eta eurongandik ikasterik badagoen ere, norberak berea egin behar duela zalantza izpirik ez dago.

K. Burgoa

CORRADINI, M. (2011)

*Crear. Cómo se desarrolla una mente creativa. Madril: Narcea.*

Liburu hau Narcea eta Hezkuntza Ministerioa elkarlanean bultzatzen ari diren bilduma interesgarri batean kokatu beharra dago: «Didáctica de las Operaciones Mentales» izenekoa hain zuzen, eta bilduma osatzen duten 12 liburutik bigarrena da honakoa (iaz kaleratu zen bilduma honetako lehenengoa Luigi Tuffanelli-rena: *Comprender ¿Qué es? ¿Cómo funciona?*). Bilduma honen helburua ikasketa prozesua adimenaren ikuspuntutik ulertzea da eta gauzen esanahiak sortzeko funtsezkoak diren adimen prozesuak identifikatzen ditu. Alde horretatik, adierazgarriak dira bilduma osatzen duten izenburuak: aipatutako *Ulertu* eta *Sortu-z* gain, honakoak hurrenez hurren beste hamarrak: *Ebaluatu, Deskribatu, Esperimentatu, Hipotesiak formulatu, Interpretatu, Epaitu, Behatu, Ekoiztu, Hausnartu* eta *Alderatu*.

Matteo Corradini adimenaren mekanismoetan saiatzen da murgiltzen 110 orrialdera iristen ez den liburu atsegin honetan. Pisu ezberdinetako lau zati ditu liburuak: bildumari dagokion egiturari jarraituz, lehendabizikoan (1., 2. eta 3. atalak) liburuari izena ematen dion kontzeptuari buruz erreferentzia egiten du kultura garaikidearen testuinguruan kokatuz; modu adimentsu eta deigarrian egiten duela esan dezakegu, izan ere honakoak dira ataletako izenburuak: *Suntsitu (Norberak bere burua suntsitu, Denbora suntsitu, Boterea suntsitu, Komunikazioa suntsitu, Emaitzak suntsitu), Sortu (Garun sortzailea, Hautematea, Ekintza sortzaileak) eta Asmatu (Ideiak materia dira, Magiatiak eskolara, Ideiak sortzeko metodoak, Irakaskuntzaren uneak, Sortzeak zein eragin ekartzen du)*. Laugarren atalak zubiarena

egiten du ikusi dugun lehenengo bloke eta hurrengo lotuz, izenburuak garbi adierazten duen eran: *Proposatzen diren Proiektuak (edo eragiteko posibilitateak) irakurri aurretiko oharpenak*.

Horrela, beste bloke nagusiari ekiten dio, alde didaktikoari begiraten diona hain zuzen. Hemen hiru atal ditugu, bakoitza proiektu bati zuzendua; proiektu irudimentsu, erakargarri eta bideak zabaltzen dituztenak inondik inora; izan ere, lehenengo proiektuak (bosgarren atala) «Fotografiar las matemáticas» darama izenburua eta argazkiei buruz zenbait gauza planteatu eta gero (Argazki bat begiratzeko lau era, Irudiaren zentzua, Fusil baten antzera, argi-kolpe bat antzera, horrela da argazkia, Zenbat dimentsio du argazki batek?, Zintzotasunez sortu), matematikari heltzen dio dogmatikoa ez dela esanez eta matematikarekin ondo pasatzeko gonbitea luzatuz jarraian proiektuan sartuz hiru fase ezberdinetan.

Seigarren eta zazpigarren atalak beste proiektu batzuk garatzen dituzte («Narrar la diversidad. Cultura del encuentro» eta «La música electrónica para la Memoria dela Shoah») eta aurrekoak bezala hauek ere arlo ezberdinetan kokatzen diren proiektu adimentsuen berri ematen digute, geurean geu ere sortzaile gisa aritzeko gonbitearekin.

Bukatzeko epilogo motz batek sortze prozesuan aktiboak izateko deia egiten du, jarritako izenburua aski adierazgarria dena: «Salgo a correr, sigo creando, vuelvo para la cena». Bibliografia eta bibliografia iruzkindua gehitzen dizkio atseginez irakurtzen den liburu honi.

Sortzearen inguruan asko esan izan (eta esango) da; atek beti zabalik daude ekarpen ezberdinetarako, baina Matteo Corradini-k garbi adierazten du errazago dela sortutakoari buruz jardutea adimen sortzailea eta honek burutzen dituen operazioei buruz baino. Izan ere, liburuak sortze prozesua deskribatu eta horretan sakontzea nahi du, irakurlea ibilbide interesgarri honetan bidaide bihurtuz.

*J.M.<sup>a</sup> Sagasti*

MONEREO, C. eta POZO, J.I. (2011)

*La identidad en Psicología de la Educación. Necesidad, utilidad y límites. Madril: Narcea.*

Izenburuak adierazi bezala, identitatearen inguruan eratuta dago liburuak, eta ez da, ez, garrantzirik gabeko gaia, bertan adierazten den bezala, ikasketa oro, irakaskuntza oro, giza jarduera oro identitate zehatz baten inguruan ematen baita; iristen zaigun informazioa identitateak iragazten du, errealitatea interpretatzen dugun erari identitateak ematen dio forma,

arazoei aurre egiteko erabiltzen ditugun baliabideen hautaketa gure identitateak markatzen du...

Liburu honen editoreek (Carles Monereo, Bartzelonako Unibertsitate Autonomakoa eta Juan Ignacio Pozo Madrilgo Autonomakoa) lehenbiziko atalean liburuari izena ematen diona jorratzen dute: Identitatea Hezkuntza-ren Psikologian, sarrera bezala uler dezakeguna. Aritu ezberdinen ekarpenak bilduz, hiru multzo nagusitan egituratzen da liburua: lehenbizikoan identitatea nola dagoen osatua eta bere modalitateak hezkuntza testuinguruan; lau atal ezberdinetan jorratzen da hau (*Identitatea aldaketa garaian. Hurbilketa soziokulturala*, Juan Daniel Ramirezena; *Identitatearen erai-kuntza Ezagupen Psikologian*, Juan Ignacio Pozorena; *Irakaslearen heteronimoak. Identitatea, «selfs» eta irakaskuntza*, Carles Monereo eta Antoni Badiarena; *Ikaslearen identitatearen erai-kuntza. Koordenada espazio-tenporalak*, Leili Falsafi eta Cesar Coll-ena).

Bigarren multzoak hezkuntza testuinguru presentzialetan zein birtualetan identitatearen eraketa-mekanismoak, aldaketa eta garapena ikertzen ditu eta oraingo honetan ere lau ataletan garatzen da: *Ikasi, sentitu, eragin. Umek marrazkien bitartez lorpen eta porroten berri ematen dute*, Montserrat de la Cruz, Nora Scheuer eta Juan Ignacio Pozorena; «*Ahots aniztasuna*» *identitate minoritarioa eraketan*, Jose Luis Lalueza eta Isabel Cresporena; *Eszenatoki akademikoak, unibertsitate-ikaslearen identitatea eta horien arteko motibazio orientazio mugimendu eta aldaketak*, Juan Antonio Huertas, Jesus Alonso Tapia, Daniel Trías, Aranzazu Ardura eta Esther Garcíaarena; *Autorearen ahotsa testu akademikoetan, Identitatearen eraketa idazle bezala*, Montserrat Castelló, Gerardo Bañales, Mariona Corcelles, Anna Iñesta eta Norma Vegarena.

Hirugarren multzoan identitatearen inguruan aldaketak eragitea ahalbidertzen duten aukera metodologikoak aurkezten dira eta beste behin, lau ataletan aurkeztuta: *Ikaskuntza eta irakaskuntza nola irudikatzen dituzte irakasleek? Kontzepzioetatik irakasle-perfilera*, Elena Martín, Juan Ignacio Pozo, M.<sup>a</sup> Puy Pérez Echeverria, Mar Mateos eta Ana Martín-ena; *Irakasle-identitateak asaldutako testuinguruetan*, Adriana Gewerc-ena; *Irakaslearen identitatea hezkuntza testuinguru presentzialetan zein birtualetan*, Ibis M. Alvarez eta Antoni Badiarena; *Aholkulari psikopedagogikoen identitate profesionala. Eraiketa eta berreraiketa prozesuak*, M.<sup>a</sup> Reyes Carretero eta M.<sup>a</sup> Lluisa Pérez Cabanírena.

Liburua izenburuan adierazitakoari saiatzen da eusten atal, ikuspuntu, marko teoriko, bide metodologiko, aztertutako kasuak eta aldagai ezberdinen artean. Hala ere, egile askoren ekarpenak dira, egitura sendoko liburua eta, osotasun bezala ikusita, zenbait momentutan faltan botatzen da erraztasuna irakurtzerakoan eta jarraipena liburuaren bilakaeran. Atalak, bakoitza bere multzoaren testuinguruan, unitate bezala ikustea izan daite-

ke aukerarik behinena; edonola ere, atal guztien bukaeran Ondorioak edo Azken gogoetak eta Erreferentzia bibliografikoen aipamenak agertzen dira, halako osotasunez jantzi nahian.

Ez da dibulgazio-liburua, testuinguru unibertsitarioan (gradu, postgradu, doktoregoa) kokatu beharrekoa baizik.

*Jose M.<sup>a</sup> Mues*